

MATIA

Fundazioa

Fraisoro eguneko zentroa

FRAISORO GERONTOLOGIA ZENTROA

Elbarrena auzoa, zk.g.
20159 Zizurkil
Telefonoa: 943 69 60 51
Faxa: 943 69 64 96



Matia Fundazioak 1888tik dihardu Gipuzkoan lanean, beren kabuz baliatzen ez diren adinduei eta haien senitartekoei laguntza ematen. Gaur egun, honako baliabide hauek ditu gure fundazioak: ospitale bat, sei gerontologia-zentro, eguneko bost zentro, errehabilitazioko zazpi zentro, gorputz-erazteko zuzendutako unitate bat eta espezializatutako hainbat kontsulta-zerbitzu (adibidez, Oroimen eta Alzheimer Unitatea eta Gerontologia Ebaluazio eta Orientazioko Zerbitzua).

Bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta, banan-banako arreta osoa eskaintzen dugu. Adinduen osasuna, autonomia, partaidetza eta gizarteratze-maila hobetzea dira gure kezkarik handienak: azken finean, adinduen eta haren familiarterkoen bizi-kalitatea areagotzea.

Arreta-eredurik aurreratuenak eta lan-talde lehiakor bezain konprometitua ditugunez, Matia Fundazioa erreferente bihurtu da adinduen zaintzaren sektore soziosanitarioan. Estatuko lehen entitate pribatua izan gara zerbitzu soziosanitarioetan kalitatearen ziurtagiri hirukoitza jasotzen eta kudeaketa-bikaintasunaren zilarrezko Q saria lortzen.

FRAISORO gerontologia-zentroan, etxean zaindu ezin dituzten eta beren kabuz



baliatzen ez diren adinduei eta haien familiei laguntzen diegu, eta bai batzuei bai besteei gure zentroan sartzeko eta moldatzeko prozesua samurtzen saiatzen gara.

Zizurkilen gaude, eta 1999an goitik behera berriztatu genuenez, instalazio moderno eta egokituena eskaintzen dizkiogu erabiltzaileari, bai eta lorategi-eremu zabalak ere. Honako zerbitzu hauek ditugu:

- Egoitza zentroa
- Eguneko zentroa

EGUNEKO ZENTROA

Eguneko zerbitzu sozioasistentzial honek funtsezko beharretan eta behar terapeutiko eta soziokulturaletan zaintza eta laguntasuna behar duten adinduen familiei laguntzea du helburu eta, horrela, zaintzaile nagusiei arnasaldiak ematea. Eguneko zentroak, familiei adinduak zaintzen laguntzeaz gain, erabiltzailearen autonomia sustatzea eta hura familia-ingurunean zein gizartean integratzea ere lortu nahi du.

Instalazioak berriki berriztatu dituenek, behar bezala egokitutako instalazio zabalak ditu. Bestalde, etxea lorategiz eta aisia-eremuz inguratuta dago, eta beraz, oso toki atsegina da.

Banan-banako arreta espezializatua

Lehenik eta behin, hasierako balorazioa egiten zaio erabiltzaileari. Zentroko diziplinarteko talde bat arduratzen da zeregin horretaz. Balorazio horren emaitzen arabera, banan-banako zainketarako plana zehazten da. Gero, aldi behin, berrikusi egiten da plan hori, erabiltzailearen aldaketan eta behar berrien arabera egokitzeko.

Familiaz eta gizarte-inguruneaz ere arduratzen gara; horregatik, informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen diogu uneoro familiari: zentroan sartu aurretik, sartzeko egunean, egokitzapen-aldian eta egonaldi osoan zehar.

Plazak

25 plaza, horietako 15 Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itunduta

Asteburuko programa

Asteburuetan ere irekita izaten ditu zentroak arreta-zerbitzu eta -programak.

- 13 plaza pribatu
- 12 plaza itundu

Ordutegia

Astelehenetik igandera
09:00etatik 18:00etara

Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Banan-banako arreta eguneroko jardueretan
- Mediku eta elikapen beharretara egokitutako dieta
- Prebentziozko geriatría-medikuntzako eta erizaintzako kontsultak
- Egokitutako garraio-zerbitzua



- Osasunari, aldatetari eta gaitasunei laguntzeko programak
- Lan eta aisia programak

INFORMAZIO GEHIAGO

Zentroaren zerbitzuei buruzko informazio gehiago nahi baduzu:

Fraisoro Gerontologia Zentroa

Elbarrena auzoa, zk.g.

20159 Zizurkil

Telefonoa: 943 69 60 51

Faxa: 943 69 64 96

Helbide elektronikoa: fraisoro@matiaf.net

www.matiafundazioa.com